

EIBAR



BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

545. zkia.
XIII. urtea
2005eko urriaren 7a

CAPICETA

Elgoibarko EAJ-PNVk 100 urte bete ditu

MILAR BIRE

Ubitarte, 11 - 943 74 14 87



FAGOR - LFA 1100 GARBIGAILUA
Elektronikoa. 6kg-ko karga. 1000 bira / minutuko lehorketan.
Mota: A-A

399 €



PHILIPS TFT 26"
Pantaila zapala, 12 zm. sakoneran.
1280x768 pixel. Progressive scan.

999,90 €

**TECNIMAGEN
14TX Telebista
14"**

89 €

**F5611 GAINEKO BITROZERAMIKA
DIGITALA-TOUCH**



Marko herdoilgalitza.

239 €

**F320
INOX LABEA**
Multifuntzionala
(aire beroa).
Egoketa amalerarako
erlojua.
Independentea.



204 €



COMBI SIEMENS KGV34610 HOZKAILUA
Kontrol elektronikoa. No Frost. Kristalezko apalak.
1850 x 600 x 600 mm.

579 €



Zure erosketak
finantziatzen ditugu

Daudenak agortu arte!

Merkeago aurkitzen baduzu aldea itzuliko dizugu!

Herri berean eta erosketa egin eta 10 eguneko epean.



UNAI VILLENA

“Bidaia luze batetik bueltatzen garen bakoitzean, guztia aldatuta aurkituko dugun esperantza izkutua daukagu, baina nahikoa da kalera irten ilusio hori ordu gutxitan desagertzeko”. Hori zioen gaur ikusi dudana filmeko protagonistak. Ni hiru egun barru bueltatuko naiz Euskal Herrira atzerian zazpi hilabete pasa eta gero. Ez da hainbeste denbora izan eta ez naiz hain urruti egon; badakit ez dudala ezer ere aldatuta aurkituko, asko jota ni egongo naiz aldatuta. Urruti nagoenean gertukoaren balioaz konturatzen naiz, eta gertu nagoenean, beriz, urrutikoarekin egiten dut amets. Ez dakit inongoa ez izatearen sentipena ote den, edo zer. Gauza da, munduan zehar bidaiatzeko gogoa piztu didala bidaia honek. Karrera amaitu eta beste kontinente batera joatea gustatuko litzaidake denbora luzerako. Ari naiz mapamundia miatzen gustuko helmuga baten bila, dagoeneko badauzkat pare bat, baina nahiago dut horretan gehiegi ez pentsatu eta egunerokoan kontzentratu. Errealitateak askotan planak eta ametsak baztertzera behartzen gaitu eta hobe da gauzak datozen moduan hartzen ikasi eta inprobisatzea. Maleta egitearen kontua ere inprobisazioaren esku utziko dut, azkenengo momenturako beti bezala. Hiru egun barru bueltan izango naiz, errutina zaharrari aurre egiteko prest. Kalera irten eta ordu gutxi batzuk nahikoa izango ote dira filmeko protagonistak zioena egia dela ziurtatzeko?

ZOZOAK BELEARI...



ALAITZ VIVES

«Urruti nagoenean gertukoaren balioaz konturatzen naiz»

UNAI

«Etxe osteko gereziendoak ez du dagoeneko gerezirik»

ALAITZ

Zure galderan tristura edo desengainu kutsua nabari dut, Unai. Oker al nabil?

Bestela izatea nahiago izango al zenuke ba?

Zure herriko merkatu txikiak ez du oraindik bakerik emango dion tokirik aurkitu. Beste orein bat hil dute hor nonbait. Uda honetako hamargarren hegazkinak lurra jo du. Bankuak hilero kobratzen dit hipoteka. A8a ataskatu da gaur. Kana bat atera zait. Istripua Zorroazako bihurtuneetan. Denok ikusi dugu eklipsea. Etxe osteko gerezi ondoak ez du dagoeneko gerezirik. Ez eta historik ere. Kotxe ilarak Txorierrin. Azkonarra ikusi dut. Batek gola sartu du. Besteak ere bai, baina ez du irabazi. Istripua Aieteko tuneletan. Umeak negar egin du. Aitak entzun du. Amak ez. Ez dago Avanzadatik pasatzerik. Udazkena da. Hegaztiekin gripea dute. Ez dut nire tallako erroparik aurkitzen. Lanetik berandu atera naiz. Akaroak nonnahi daude. Bizikletaz nabil.

Eta zer gertatuko litzateke itzuli eta guztia aldatua aurkitu bazenu?

Behin bere etxeko sukaldeko obren ostean etxea bera errekonozitu ezinik geratu zen pertsona bat ezagutu nuen. Inoiz ez zen izan zena izatera itzuli eta bere burua errekonozitu ezinik, galdu egin zen.



TURISMO EGITEA ETXERA ITZULTZEKO GRINAREN BILA OSO URRUN BIDAIATZEA DA

Georges Elgozy



Mila esker Santa Klarako mojei

Astero otoitz giroan biltzen garen 40 lagunek, Argia Taldea izenarekin, Santa Klarako mojei eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu, 21 urtean zehar hain ondo hartuak garelako, asterik aste, beren etxe edo komentuan. Eliztar, sekular, gazte eta ez hain gazte garenok poz giroan otoitz eta abesti zoragarriak abesten ditugu, Gure bizitza pozten duen elkarrenganako maitasunak behartuta, bihotzez gure esker ona azalzera sentitzen gara.

ARGIA TALDEA

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENeN edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorezkoak dira.
2. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
3. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
4. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
5. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

E-POSTA


barren@elgoibarkoizarra.com



BARRENeK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.

[b]arren

Argitaratzailea:



Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea **PUBLIZITATEA** Eider Iriando **MAKETATZAILEA** Jaione Unanue **KOLABORATZAILEAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Mikel Comejo, Juanito Garostiza, Amaia Gorrotxalegi, Sare Gurmuxaga, Imanol Larrataga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Iban Urtizar, Kokoe KE, Urruzuno, Unai Villena, Alaiz Vives **ESABEA ZAHARRA** Gotzon Gariteren liburukit **INPRIMATEGIA** Geru **TIRADA** 4.410 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



KEXAK

• Herritar batek esan digunez, **Kiroldegiko gimnasioa oso egoera txarrean dago**: “Jende asko joaten da gimnasiaira kirola egitera, eta egoera tamalgarrian dago. Txikia da, hezetasun handia dago, sekulako hotza egiten du eta makinak oso zaharrak dira. Elgoibarrek badu gimnasio Mintxetan, baina kiroldegian ere ganoraz jarri beharko lukete, edo bestela itxi. Baina zerbitzua ematekotan ganoraz eman dezatela. Bertara joaten garen gehienoi berdin zaigu hileroko kuota berezi bat ordaintzea gimnasioa erabiltzeko, baina berriro beharra dauka. Neguan gainera, kanpoan kirolik ezin denez egin, askoz jende gehiago joaten da, eta askotan ez da lekurik egoten. Kiroldegiak orokorrean berrikuntza bat behar du.”.



• Herritar batek esan digunez, **Perretxiko Lehiaketaren ostean Kultur Etxe inguruko lurra perretxikoz beteta zegoen**: “Joan zen astean, Karakate Elkarteak antolatutako Perretxiko lehiaketa izan zen. Oso polita, eta ume mordoska batek hartu zuen parte gainera. Honelako gauzak egitea oso ondo dago, baina lehiaketa bukatutakoan perretxikoak jaso egin behar dira, eta ez edozein lekutan bota. Kultur Etxe inguru honetan badaude zabor kontenedoreak, eta bertara botatzea ez da horrenbesteko lana. Denon artean herria txukun mantendu behar dugu.”.

Atal honetarako kexak, txalok edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12



karkizano
San Frantzisko, 14 – Tel. 943 74 05 49



Arrieta
San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49



**CORDON
VILARCHAO**

San Roque, 7 behean
Pol. Glase - Glasego kalea, 18 - 25 eta 26 modaleku
Tel. 943 740 578

DEKORAZIOA

Kanpo eta barneko estalitura
Zaluen kolokazioa
Lakatuak: egur, aluminio, P.V.C.
Pintura orokorra



Elgoibarko **BARREN** astekarian

ZUZENDARIA BEHAR DA

Eskatzen da:

- Kazetaritzan lizentziatua.
- Proiektu bat eta lantalde bat zuzentzeko gaitasuna.
- Harremanetarako dohainak.
- Euskara maila ona (ahoz eta idatziz).

Baloratuko da:

- Esperientzia sektorean.

Eskaintzen da:

- Urtebeterako lan-kontratua.

Curriculumak jasotzeko azken eguna:
urriak 21

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkarte
Ubitarte 4, behea 20870 ELGOIBAR



URRUZUNIOREN *Luma*

Ahots urrun eta haserrea (Matalazen baimenaz)

Zein da hostoak erortzeko sasoian Amoko bidetxidorreran zehar arte zaharrenei izkin eginez entzuten den zurrumurrua?

Ez al dira Jaunbeltzek, pobreei laguntzeko eta bide batez tripa ondo betetzeko aberatsei lapurtzen zien Arnoko bandoleroak, Ospasko zelaietan behera ihesi harrapatua eta Markinan juzgatua izan zenak, kartzelatik sardinera ondarrutar batekin Ameriketara ospa egin zuenak, itsasontziko kareletik ukabila zut bota zituen madarikazioak?

Zein da gazte batzuk Bizkotxerixia okupatu eta auzokideak melokotoi poteekin meixendia ematera datozen bitartean, poliziarri deitu berri dioten udaletxekoen begiradak betirako lausotzera Kilimoi errekatik datorren zurrumurru haserrea?

Ez al dira Jaunbeltz bidelapur nobleak Ameriketara ihesean bota zituen madarikazioak?

Bizirik ote dago ba Jaunbeltz hilen artean?
Eta zeu, bizien artean hilik ala?

Alain Ulazia

[ZORTZIKO TXIKIAN]



ANDRES DORTA

EL GAUTXO
PIZZERIAKOA

• **Argentinar bat italiar janaria prestatzen?**
Argentinan pizzeria batean egin nuen lan eta aitak ere pizzak egiten zituen.

• **Zergatik "El Gautxo"?**

Hemen El Pive esaten didatelako. Gautxoak Panpan bizi ziren baseritarren antzerakoak dira.

• **Egun borobil bat edukitzeko pizza ala donuts-a?**
Pizza bat.

• **Zein osagai ezin da falta pizza batean?**

Mozzarella

• **Emakume bat konkistatu al daiteke pizza batekin?** Baietz uste dut, ondo egina baldin badago eta giroak laguntzen badu, bai.

• **Gozoa ala gazia duzu nahiago?**

Gozoa, ni pasteleroa naiz.

• **Argentinar postre tipikoa?**

Krepeak esne gozoarekin.

• **Nola gozatuko zenuke egun bat?**

Arratsaldez Mintxetan futbol partidu bat jokatzu, eta gauean nire emaztea eta alabarekin afaltzera joanez.

• **Euskal pizzak zein osagai izango lituzke?**

Onddoak eta pipermina.

komikia

Hil da gero... anton pirulero



Kokoe 032

[AKORDATZEN NAIZ]



MIREN VALLEJO

1923an jaioa

«Satur maistria»

Satur maistria, zenbaterik ezagutu genduan! Hau irakurtzen dozuen asko ez zerate gogoratuko, baiña bai zuen amak, eta amamak gehiago; baita Elgoibartik kanpora bizi diranak ere. Baietz, gogoratu zeratela? Satur izan zan danen ama, umezaiña, maistria... Ikusi bihar zan zenbat papel izan zittuan. Han egoten giñan banko txikietan jarritta, banko luziak ziran, baiña txikiak, bajuak. Gorputza atzera eta aurrera eragiñez,

numeruak, letrak... ikasiaz. Baita Aita Gurea ere, Aitta guria esaten genduan! Ikasi bai, baiña zer esaten genduan jakin be. Eskerrak gerora landu dogula gure otoitzik edarra.

Bitxixa izan zan gure eskola txikixa. Maistriarengana juten giñan kumunera jun nahi genduan bakoitzian, atzapar bat ipiñiaz gauza bat nahi bagenduan, eta bi, bi gauza baziran. Ondo merezittako zeruan zaude.

Goian bego



[GURE BERBAK]

Esapide adierazgarriak (2)

Aurreko hastian hasi genduan sail bati jarraituko diogu gaurkuan ere. Elkarrizketetan eta kontakizunetan erabiltzen diran egitura adierazgarri eta indargarri batzuen adibide gehiago ekarri diitut. Hona hemen, bada, herriko hiztun adiñeko batzuen jardunetik etaratako batzuk:

- *Majo bizi haiz, gero, eh!*
- *Jota ura nundikan dixen, jota handik juten da agudo aingirial*
- *Hantxe errekan birek esplotau zeber han. Jota esplotau zebernian, jota ura gora baiña! Zelako txorva! Buenooo!*
- *Pixkat illuntzen hasten zanian, maixuak tilin-tilin kanpaia jo, ta aide danak etxera!*
- *Makaleko juergia egin genduan San Mateuetan!*
- *Motellak! Hori dok, hori, ganoria daukazuen!*
- *Nik ez dot bai ezer okerrik egin, eta hor konpon, Mari Anton!*
- *Lehen ume batekin lanak, eta bigarrenan esperuan. Ointxe egun gorri!*
- *Ene! Goiko-Erotak eta Urbanek eta ez dakitt zeñek harrapau juek arraiña. Mekaguen la letxe!*
- *Soldauak eta, senbat ogi suri jun tzian ibaixan siar. Akordatzia ere senbat ogi suri jun sian!*
- *Lana? Biharko egin bizimodua aurrera etarako badogu!*

Jesus Mari Makazaga



PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
Xixilion, 2 · 3.sotoa ☎ 943 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA



TERAPIA FAMILIARRA
(bikote eta banakako terapia)

PSIKOLOGIA

(HARREMAN ARAZOAK:
bikotearekin, familiarekin edo kideekin)

(LIMEEN ETA NERABEEN ARAZOAK

(ANTSIAZTATEA

(DEPRESIOA

(ESTRESA

(ELIKADURA ARAZOAK

(AUTOESTIMA

HARRERAK LEKORON BERRIZTATZE KALEA-11

milan mozika: 676 61 70 55

100 URTE BETE DITU

Elgoibarko EAJ-PNVk sortu zeneko 100. urteurrena ospatzen dihardu egunotan. 1905. urteko urriaren 1ean inauguratu zen lehen Batzokia Elgoibarren eta bihar, hilak 8, Plaza Handian dagoen egungo Batzokia inauguratuko dute berrikuntza lanak amaitu ostean. Elgoibarko dultzaineroek eskainitako kalejirak hasiko ditu ospakizun ekitaldiak (11:30). Ondoren Alderdiko agintariei ongi-etorria egingo zaie. Josu Jon Imaz eta Joseba Egibar etorriko dira. Alderdizale eta alderdikideentzako ekitaldia eskainiko dute. Amaieran, eguerdiko 13:30ak inguruan, atea zabalduko dira eta nahi duten herritar guztiak bisitatu ahal izango dituzte instalakuntza berriak.

Erreportaje honetan 100 urteko historia luzearen lehen uneak gogora ekarri nahi izan ditugu. Sorrera urtetik (1905) Primo de Riveraren diktadura (1923) garaira artekoak liburuetatik ateratako datuak dira eta hortik aurrerakoak berri, bizi guztian alderdiari lotuta egon diren bost elgoibartarrek eman digute. Itziar Ajuria, Itziar Konde, Julian Iriondo eta Maite eta Miren Vallejo bildu ditugu mahai baten inguruan eta Espainiako gerra zibilak eztanda egin aurreko urteetako Batzokiaz, abertzale izateaz edo diktaturako garai gogorretaz jardun dugu.

Eusko Alderdi Jeltzalea Elgoibarren (1905-1923)

• 1894an Sabino Aranak "Euskal Batzokija" elkarte sortu zuen, geroago Eusko Alderdi Jeltzalea izango zenaren sorburua. Elkarte honetako kideen artean gipuzkoarrak ziren batzuk, Deba ibarrekoak, batez ere. Bazkideetako bat Bernardo Sangroniz zen, Alderdiaren Elgoibarko Udal Batzordeko lehen ordezkaria izan zena, 1905. urtean.

• Sabino Aranaren heriotzaren ostean, (1903), alderdiko buruzagitzak 10 kide baino gehiago zituen herrietan ordezkari bat izendatzeko agindua eman zuen 1904an.

• Abertzale mugimenduen lehen berriak 1904koak dira Elgoibarren.

• 1905eko urriak 1, "Elgoibarko Euzko batzokija" inauguratu zen. Litekeena da "Café Iceta" (egun Gabi jatetxea dago) egon zen eraikuntzan egotea Batzokia. Ziurrenik tabernaren goiko solairuan. Inaugurazio egunean egin zen bazkarira herri ezberdinetako pertsonak hurbildu izanak eta 1906an, 1908an eta 1911n EAJ alderdiaren nazio-biltzarrak Elgoibarren ospatu izanak, batzoki handia zela azaltzen dute.

• 1907an 25 kide zituen alderdiak Elgoibarren eta 1919an ehun kide izatera iritsi zen.

• 1923ko probintziako diputazio hauteskundeetan alderdirik bozkatuena izan zen EAJ.

• Hazkunde hau hiru elementuren defentsan oinarritu zen:

- 1) Erligio katolikoak, euskara eta foruak babestu
- 2) Antolakuntza bizi, eraginkor eta mugiarazlea
- 3) Aliantzen politika bizia



• Gizarte, kirola, kultura hezkuntza eta beste hainbat alorretan aktibitate handia erakutsi zuen alderdiak lehen urte hauetan. 1904an dozena bat ekitaldi antolatzetik 1923an 450 ekitaldi antolatzera pasa zen EAJ Gipuzkoan. Elgoibarren 139 ekintza antolatu ziren denbora tarte honetan.

• Lehen Mundu Gerrak, Primo de Riveraren diktaturak (1923) eta batez ere gerra zibilak eta honen ondorioek EAJ alderdiak ordura arte zeraman goranzko ibilbidea apurtu zuten. 1905ean lau zinegotzi lortu zituen EAJk Gipuzkoan eta 1922ko Udal Hauteskundeetan 65. 1923ko probintziako diputazio hauteskundeetan alderdirik bozkatuena izan zen.

• Elgoibarri dagokionez, 1911ko Udal Hauteskundeetan zinegotzi bat lortu zuen EAJk beste alderdi batekin koalizioan. 1920an eta 1922an, berriz, bi zinegotzi lortu zituen koalizioen beharrik gabe. Garai hartan Elgoibarren zenbat zinegotzi auketatzen ziren ez



Ezkerretik eskumara: Maite Vallejo, Itziar Ajuria, Itziar Konde, Julian Iriondo eta Miren Vallejo.

EAJ Elgoibarren (1923-1976)

Nolakoa zen gerra zibila iritsi aurreko Batzokia?

Miren Vallejo: Batzokia euskara indartzeko, euskal dantzak irakasteko, etab. sortu zen. Horrez gain, emakumeen eta gaztetxoeren taldeak atera ziren bertatik. Aberri Eguna, umeekin jaialdiak, antzerkia eta mendi irteerak ere antolatzen ziren. Nik adibidez, Emakume Abertzale Batzako hileko kuotak kobratzen nituen.

Julian Iriondo: Horrela funtzionatzen zuen orduan, gizonetzkoak alde batetik eta emakumezkoak bestetik. Gaur ulertu ez arren, orokorra zen. Elizan ere gizonak aurrean eta andrak atzean.

Politika baino ekintza kulturalak zirela nagusi dirudi.

Itziar Ajuria: Ez, orduan ere (1932tik 1934ra) makaleko arazoak zeuden Karlistekin, Republikanoekin, Sozialistekin eta Komunistekin.

Julian Iriondo: Plaza Handian sarritan antolatzen ziren ekitaldi politikoak eta zenbaitetan egurra ere izaten zen desberdin pentsatzen zuten artean. Sozialistak oso antiklerikalak ziren eta eliza kanpoan antolatu zuten manifestaldi bat akorduan daukat. Internazionala abesten hasi ziren "arriba los pobres del mundo..." Apaizak behartsuen inguruan

botatuko sermoiaren ostean izan zen, batako zein besteok antzera pentsatzen genuen, barren!

I. A.: Guretzako inperuko deabruak ziren eta "abajo el klero" deiar dar egiten zuten. Eta kantuan: "si supieran los curas y frailes la paliza que se van a llevar, subirian al coro cantando libertad, libertad, libertad". Baina EAJrekin gaizkien eraman zirenak Partido Karlistakoak ziren.

Elgoibarren zer alderdi politiko zeuden?

M.V.: Partido Karlista, Sozialistak eta Republikanoak. Indar gehien, ordea, Nazionalistek genuen; EAJk eta ANV (Accion Nacionalista Vasca). Azken hauek PNVtik alde egin eta ezker aldera jo zuten abertzaleak ziren. Gure aita kasu.

Gerra zibilaren ostean Batzokia desagertu zen.

I.A.: Iceta kafearren gainean zegoen Batzokia Frente de Juventudes (Falange Española Tradicionalista y de las Jons) taldearen egoitza izatera pasa zen 1936an. Akabo! denok kanpora. Tropak sartu zirenean etxez etxe miaketak egin eta euskara edo abertzale kutsua zuen edozer deuseztatu ziguten. Beldurraren beldurrez dokumentu eta liburu interesgarri asko erre edo lurpean ezkutatu ziren, betirako galduz.

M.V.: Abertzaletasuna isilpeko kontua izatera pasa zen. Aberri Eguna baserri batean eta familian ospatzen genuen. Orduan ikasi nituen euskal kanta guztiak.

I. A.: Tropak sartu zirenean reketek batzuk etorri ziren etxera. "Hemos venido a cristianizar el pueblo vasco". Nere amak alde egin zutenean amorrubiz deiar dar egin zuen, "zer pentsau ete dabe hauek, lau hankakoak gerala! Horrek guri erakustera, gu kristautzera!" Auzolagunek karkabatik entzun zuten deiar darra.

Gerra ostean zaila al zen EAJkoa izatea?

M.V.: PNV-koa izateagatik gorroto eta errepresalia handiak jasan genituen.

J.I.: Abertzaletasuna elizan eta komentuetan egosi da intelektualki. Elizak eutsi dio euskarari. Gauza batzuetan oker ibili zen eliza, baina unerik txarrean ere errosarioa euskaraz abesten zen eta apaiz askok isilpeko lan asko egin zuen euskal mugimenduaren alde.

I.K.: Transzizioarekin batera berpiztu zen mugimendu abertzalea. Ordura arte lurrazpiko lana egin zuen jendeak, klandestinitatean.

I.A.: Urbian ikusi genuen estreinako ikurriña Alderdi Egunean (1956-57) eta hura zen beldurra pasa genuena. Emozioa eta beldurra.

[PROTAGONISTA]



Xabier **Arzallus**

Joan zen zapatuan, urriaren 1ean, Xabier Arzallus EAJKo presidente ohia izan genuen Elgoibarren. Gure herriko lehenengo Batzokia inauguratu zenetik 100 urte bete ziren egun horretan bertan, eta Xabier Arzallus etorri zen Elgoibarko EAJK antolatutako "Nunca Más: gerra irudiak" erakusketaren inauguraziora. Ekitaldi hau txalaparta doinuekin hasi zen, eta ondoren Xabier Arzallusek hitzaldi bat eskaini zuen. Alderdikide ugari gerturatu ziren ekitaldira, eta txalo artean hartu zuten Arzallus. Honetaz gain, bihar, urriak 8, Elgoibarko Batzoki berriua inauguratuko da.

[NOTIZIA]

Lurrazpiko 19 zabor kontenedore jarriko dira Elgoibarren

Elgoibarko Udalak lurrazpiko 19 zabor kontenedore jarriko ditu herriko toki desberdinetan datozen hilabeteetan. Lurrazpiko zazpi zabor kontenedore Pedro Migel Urruzuno kalean ipiniko dira, hauetako lau zabor solidoa biltzeko izango dira, eta gainontzeko hirurak papela, ontziak eta kartoiak biltzekoak.

Antonio Arrillaga kalean, bestalde, 6 zabor kontenedore jarriko dira. Kasu honetan zabor solidoarentzako bi izango dira, paper eta kartoiarentzat beste bat, bi beirarentzat eta azkena ontzientzat. Azkenik, Aita Agirre Plazan jarriko dira beste seirak, hiru zabor solidoarentzako, bat beirarentzako, beste bat ontzientzako eta azkena papela eta kartoiarentzako.



410.000 euro

Proiektu honek 410.000 euroko aurrekontua izango du, eta Udalaren asmoa urte amaierarako bukatzea izango da. Lurrazpiko zabor kontenedoreak jartzen diren lekuan orain arte daudenak kenduko dira.

[ZENBAKIA]

22

Odol Emaitzen Elkarteak 22 elgoibartar omenduko ditu datorren urriaren 23an, 25 aldiz odola eman dutelako. Omenaldia Arraten egingo da, eta bertan Elgoibarko odol emaitzez gain, Debagoiena eta Debarrenako beste hainbat odol emaitze ere omenduko dira.

asteko [ARGAZKIA]



Aste hau eklipsearen astea izan da. Ikusiko ote da? ez ote da ikusiko? Joan zen astelehenean, urriaren 3an, eklipsearen gaia besterik ez zegoen heritarren ahotan, eta gehientsuenak eguzkiari begiratzen zioten, betaurreko bereziak zituztenak zuzenean eta gainontzekoek zeharka, baina elgoibartar ugari topatu genituen goizeko 11:00ak aldera zerura begira. Poliki-poliki ilargiak eguzkia estali zuen, iluntasun arraroa nabari zen kalean. Ederra izan zen benetan, fenomeno harrigarria. Beste 28 urte pasa beharko dira berriz horrelakorik ikusteko.

Sigmako aparkalekuko obrak gelditzeko eskatu dio Einbiouk Udalarari



Einbiou Herri Plataformak Sigmako aparkalekuan egin nahi dituzten obrak gelditzeko eskatu nahi dio Udalarari. Einbiouko kideen esanetan, "hau guztia inposaketa lotsagabea da". Udalak balio anitzeko gune bat sortu nahi duela adierazi du, baina Einbioukoek azaldu zutenez, proiektuak garbi dio ibilgailu arinen aparkalekua izango dela: "aparkalekua egin nahi badute, egin dezatela, baina behar gehiago dagoen tokian". Einbioukoen iritziz, Elgoibarren behar handiagoak daude guztionak diren 700.000 euro horiek gastatzeko.

Burugabekeria baten historia

"2003ko hauteskundeak egin zirenean EAJren programan ez zen proiektu hau azalzen, eta merkadilloa Sigman kokatzea erabaki zutenean ere, ez zeukaten obrak egiteko asmorik". Einbioukoen hitzetan, Sigmako aparkalekua burugabekeria baten historia da: "Proiektua gezur eta inprobisazio hutsa da, kazikada osoa, diru publikoa alperrik botatzeko modua". Bestalde, trafiko eta aparkaleku arazoari buruzko eztabaida bat eta merkadillokoei beren lana Plaza Txikian edo Handian egiten uzteko eskatu nahi diote Udalarari.

"Kontseilua"ren Euskal Tonbola Elgoibarko tabernetan

Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak antolatutako Euskal Tonbola Debabarrena eta Debagoienako 150 taberna baino gehiagotan dago. Hortaz, Elgoibarko zenbait tabernetan ere euskal tonbola erosteko aukera dago. Euskararen normalizazioa joko baten bidez gizarteratzeko nahiarekin atera dituzte txartelok. 5 txartelatik 1 sariduna da eta sariak ugariak: mediterraneo itsasoan kruzeroa, asteburuak landetxeetan, talasoterapia zirkuitoak, afariak, argazki kamera digitalak, sakeleko telefonoak, MP3 irakurgailuak, DVDak...



Euro baten truke bezereok txartel bat jasoko dute. Txartel sariduna suertatuz gero, tabernan bertan jasoko du saria erosleak. Antolatzaileek euskararen aldeko konpromiso bat txertatu dute txartel bakoitzean, gizarteak eguneroko bizitzan euskararen alde zer egin dezakeen kontura dadin.

[MOTZ-MOTZIAN]

1955ean jaiotako bazkaria
Urriaren 16an 1955. urtean jaiotako mendaroren bazkaria egingo da. Bertara joateko interesa dutenek 60 euro sartu beharko dituzte Kutzako kontu korronte honetan:
21010054170125103689
Informazio gehiago 943 033538 (Nuria) edo 943 033513 (Juanita).

Txankakua Merkatarri Elkartearen zozketa

Txankakua Merkatarri Elkarteak Nazioarteko Folklore jaialdian eginiko zozketaren irabazleak Ines Arriola, Irati Erostarbe eta M^a Eugenia Kortaberria. Saria elkarte dendetan gastatzeko erosketa txeketa izan da.



Nafarroa Oinez

Elgoibarko Izarrak Udalaren laguntzaz, Nafarroa Oinez 2005erako autobusa antolatu du. Aurtengoan Nafarroako Ikastolen festa Olazti-Ziordian izango da datorren urriaren 16an. Interesatuak Elgoibarko Izarrak Ubitarten daukan lokalean eman dezakete izena. Bazkideek 8 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainontzekoek 10. Izena emateko azken eguna urriaren 14a da.

Esperientzia eskola

Debegesak antolatuta, joan zen astean inauguratu zen debabarrenako esperientzia eskola. 50 urtetik gorakoentzako ikastaroak eskainiko dira. Aurtengoan 25 lagunek eman dute izena. Interesatuak 943 820110 telefonora deitu dezakete.

Inkesta

Heriotza tasak gora egin du Euskal Herrian gaixotasunek eraginda, batez ere.

Egiten al duzu ezer zure osasuna zaintzeko?

M^a JESUS IRURETAGOiena
Etxekoandrea 58 urte



“Bai, nire senarra biriketako tumore batek jota hil zen, eta ni zaintzen naiz. Tentsioa eta kolesterola zaintzen ditut, eta ahalik eta grasa gutxien jaten saiatzen naiz.”

AMAIA ERKIZIA
Publizista
29 urte



“Bai, eta oso ondo nago. Ez dut haragirik jaten, elikagai garbiak jaten saiatzen naiz. Bestalde kirola egiten dut, mendira joan eta pasiatzea ditut gustuko.”

GUSTAVO PIÑEIRO
Jubilatua
57 urte



“Ez dago beste erremediorik, biziiza bakarra daukagu eta zaindu egin behar da. Elikadura zaintzen saiatzen naiz, eta pasiatzera eta mendira joaten naiz.”

NICOLAS FERRERO
Jubilatua
60 urte



“Bai, derrigorrezkoa da. Ondo jaten ahalegintzen naiz eta hiru hilabetean behin medikuarengana joaten naiz analisiak egin eta apur bat zaintzeko.”

[BAI ala EZ?]

Telefono mugikorra finkoa baino gehiago erabiltzen al duzu?

BAI %79

“Bai. Fijoa ia erabili ere ez dut egiten. Hilabete amaieran ere edarki igartzen dot mobila erabiltzearen erresaka!!”

EZ %21

“Ez, finkua askoz gehiago erabiltzen dot, hala ere, gaurko bizimodua kontuan izanik etorkizunian mugikorra gehiago erabiliko dotela uste dot.”



Datorren asterako... **AEBko dirudun batek 20 milioi dolar ordaindu ditu oporretan espaziora joateko. Joango al zinateke espaziora oporrak pasatzera?**

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) ERANTZUNA

7744 zenbakira

SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.



Hurrengo hilean 2 pertsonentzako zirkuito bat zozketatuko dugu **Kresala hotelean**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!
www.aisiahoteles.com

JAIOTAKOAK



Claudia Arrillaga Zapparoli
[Irailak 6]
Eduardo eta Esmeralda



Ihintza Gonzalez Moreno
[Irailak 6]
Ion eta Miren



Maialen Cearsolo Zuazubiscar
[Irailak 13]
Iñigo eta Nerea



Olatz Macazaga Idarraga
[Irailak 20]
Antonio eta Leire



Aitor Errezil Portu
[Irailak 17]
Guillermo eta Ainhoa

Jon Errezil Portu
[Irailak 17]
Guillermo eta Ainhoa

Xabier Goñi Orozco
[Irailak 7]
Jesus eta Virginia

Enara Guisasola Marquez
[Irailak 15]
Lazaro eta Luisa

Patxi Uribe Gallastegi
[Irailak 23]
Eduardo eta Miren

Julen Uribe Gallastegi
[Irailak 23]
Eduardo eta Miren

Nahia Gonzalez Gomez
[Irailak 24]
Pedro eta Laura

HILDAKOAK

Francisco Lorenzo • [60 urte] • Irailak 1
Vicente Calomarde • [75 urte] • Irailak 9
Luis Nuñez • [82 urte] • Irailak 11

EZKONTZAK

*Hilabete honetan ez da ezkontzarik egon
Elgoibarren

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu **BARREN** astekarira **943 74 41 12** telefonora edo bidali e-postaz **barren@elgoibarkoizarra.com** helbide elektronikora.

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak.**

**Donostia eta
probintziako
erietxe zentroetan
ere bai.**

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56
(Mobila) 608 77 07 01



IRAKASLEARI azterketa

Soinketa irakaslea

ENERITZ ITURBE



- 1 **Soinketa irakasteko derrigorrezkoa al da forman egotea?**
Ez dago zertan oso forman egon behar, baina minimo bat edukitzea ondo dago, azalpenak emateko bada ere.
- 2 **Soinketari irakasgai moduan, garrantzia nahikoa ematen al zaio?**
Beti hartu izan da irakasgai "maria" bezala, eta horrela jarraitzen du.
- 3 **Zer da ikasleei gehien gustatzen zaiena?**
Kirol librea, beraiek aukeratutako kirola egitea.
- 4 **Eta gutxien?**
Erresistentzia lantzea.
- 5 **Nola lortzen duzu ikasleak korrika jartzea?**
Motibatu egin behar dira, eta badakite korrika saio baten ostean kirol libre saioak izango dituztela. Notarako izanik gehiago saiatzen dira.
- 6 **Zeintzuk dira alperragoak, neskak ala mutilak?**
Ezin da orokortu, lehen neskak, baina orain baditut mutil batzuk ere oso alperrak direnak. Oso ikasle kirolariak ditut orokorrean.
- 7 **Eta zeintzuk konpetitiboagoak?**
Mutilak, dudarik gabe.
- 8 **Ikasleek serio hartzen al dute soinketa irakasgaia?**
Bai eta gainera gustuko dute, ez dute erraz galtzen soinketa klasea.

NOLAKO ENBORRA... halako ezpala



ITZIAR EGAÑA ama



ANDONI HERNANDEZ semea

GALDERAK

- | | | |
|---|--|---|
| 1. Opor osteko buelta gogorra al da? | 1. Ez, erraz hartu dut eguneroko martxa. | 1. Ez, ohituta nago goizo jaikitzen. |
| 2. Zerk pozten zaitu? | 2. Inguruko guztiak ondo ikustea. | 2. Amamak eindako erregaluak. |
| 3. Eta zerk ematen dizu beldurra? | 3. Beldurra ezerk, errespetua bai. | 3. Suge pozoitsuek. |
| 4. Gava ala eguna? | 4. Eguna, luzeagoa da. | 4. Eguna, gava lo egiteko da. |
| 5. Asteko egunik gustukoena? | 5. Zapatua, ordurik gabe ibiltzeko. | 5. Asteazkena, plastika daukagulako. |
| 6. Irakurri duzun azken liburua? | 6. Egunkaria eta BARRENA irakurtzen ditut. | 6. "La sirenita". |
| 7. Erraz haserretzen al zara? | 7. Bai, baina berehala pasatzen zait. | 7. Bai, baina azkar pasatzen zait. |
| 8. Zerekin egin duzu amets bart gavean? | 8. Ez naiz gogoratzen, ondo egin dut lo. | 8. Hegazkin pilotua naizela egin dut amets. |

TXIKI inkesta

Erabiltzen al duzu txat-a?
Egin al duzu lagunik?

Jon Ander Garcia
LH 6

Ez zait gustatzen, ez dakit nola sartzen den, baina sartuko banintz ziur lagunak egingo nituzkeela.



Iñaki Konde
LH 6

Bai, asko gustatzen zait. Gaixorik nagoenean lagunekin txateatzen dut eta inguruko herrietako jendea ezagutu dut.



Tomas Azpeleta
LH 6

Bai, asko gustatzen zait eta gurasoek uzten didaten denbora gutian ibiltzen naiz. Inguruko herrietako lagunak egin ditut.



Ander Ezenarro
LH 6

Ez, nahiago dut telefona hartu ordenagailua piztu eta itzaltzen ibili baino, beraz ez dut lagunik egin txatean.



LEHIAKETA

Zer dago faltan, soberan edo aldatuta?



Erantzuna:

Izen abizenak:

Telefonoa:

SARIA

Elhuyar-ek eskainitako **'GIPUZKOA ZURE ESKU'** mahai jokoa + CD-ROMa



14 urtetik beherakoei zuzendutako lehiaketa.

Erantzunak BARREnera ekarri edo posta elektronikoz bidali:

barren@elgoibarkoizarra.com



GAZTIA NAIZ

elkarrizketa...

Maialen Aranguren

BI HILABETE INGURU DARAMATZA MAIALEN ARANGUREN AZPEITIARRAK UDALEKO GAZTE TEKNIKARI POSTUAN. GURE HERRIKO HAUR, NERABE ETA GAZTEEN AISIALDIRAKO BEHARRAK LANTZEN ARI DA. HORRETRAKO IKASTETXE ETA ELKARTE DESBERDINEKIN JARRI DA HARREMANETAN, BAINA ORAINDIK LAN HANDIA DAUKA EGITEKO AZPEITIAR HONEK. HERRITARREN PROPOSAMENAK JASOTZEKO PREST DAGO: 943 74 10 50/gazteria@elgoibar.net

“Haur, eta gazteentzako aisialdi eskaintza integrala sortzea da gure nahia”

Nor da Maialen Aranguren?

26 urteko neska azpeitiarra naiz. Gizarte Hezkuntza eta Psikopedagogia ikasketak egin ditut, eta Haur Hezkuntzako heziketa zikola amaitu berri dut. Orain arte Gazte Informazio Bulegoan aritu izan naiz lanean, Azpeitin. 4 urte pasa egin ditut bertan gazteentzako informazio interesgari guztia pilatu eta bercaiei ematen.

Noiztik zabilta Gazte Teknikari lanetan?

Uztaila bukaeran hasi nintzen Udalean sail ezberdinetakoekin harremanak egiten e.a, iraila ezkerotik herriko beste eragileekin nago harremanetan.

Zein da Gazte Teknikari baten lana?

Herriko haur eta gazteekin zerikusia duten gaietarako Udaleko arduraduna da gazte teknikaria. Gazteen proposamenak aurrera eraman eta ekimenak sustatzeko gazteen eta udalaren bitartekaria da. Herri mailan haur, nerabe, eta gazteen inguruko aisialdi eskaintza antolatzea, aisi hezitzailea, da gure lana. Aisialdian hiru etapa horietan dauden heziketa beharrak asetzea izango litzateke nire eginbehar nagusia. Ikastetxeetatik kanpo, haur, nerabe eta gazteei jarraipen bat egin eta aisialdirako baliabideak ematea. Haurtzarotik helduarorako heltze prozesu horretan garapen pertsonala lortzeko

BARREN

beharrezko tresnak eta trebeziak eskuratzea ahalbidetzea.

Zein egoeratan aurkitu duzu Elgoibar?

Orain hasi naiz piskat herria ezagutzen. Haur, nerabe eta gazteak mugitzen diren alorrekin nago harremanetan. Horien artean ikastetxeak dira garrantzitsuenetarikoak, eguneko denborarik gehiena bertan pasatzen baitute. Bestalde, herriko elkarteekin harremanetan jarri naiz eta aurrerantzean izan dezakegun elkarlanaz mintzatu. Elgoibarrera iritsi aurretik banekien Aisialdian Elgoibarko Izarrak lan handia egiten zuela, eta beraien elkarlanean gabiltza hainbat proiektu aurrera ateratzeko.

“Datorren ikasturterako ludoteka eta gazte lekua prest egotea nahi dugu”

Zeintzuk dira aisialdian ikusi dituzun behar garrantzitsuenak?

Bi adin bereiztu behar dira, haurrak batetik eta nerabe eta gazteak bestetik. Txikienak motibatzea eta ekintzetan parte hartzea bultzatzea errazagoa da. Gazteen parte hartzea lortzea zailagoa da. Elgoibarko Izarratik esan digutenez ere, GAZTko ekintzetan askoz jende gutxiagok hartzen du parte. Ondo aztertu behar dugu horren zergatia, zer falta den... Gune baten beharra ikusten dugu, gazteen erreferentzia izango den leku bat behar dutelakoan gaude. Gazteek beren gune bat izateak elkarlana, partehartzea eta elkarkidetzat sustatzeko aukerak ematen ditu.

Zein da zure helburua epe laburrera?

Herria ezagutu, herritarrekin harremanak egin eta beraien eta beraientzat lan egitea.

Eta luzera?

Ludoteka eta gazte lekua martxan jartzearekin, haur, nerabe eta gazteentzako aisialdi eskaintza integral bat sortzea da gure nahia.

Ludoteka eta gazte lekuak harrera ona izango al dute?

Baietz uste dut. Beti egongo dira zailtasunak, hasieran martxa hartzea kostatu egingo zaigu baina baiezkoan nago. Piskanaka gauzak egiten hasiko gara, eta gazteei beraien proposamenak egiteko aukera eskainiko diegu beraien gustuko lokala osatzeko. Ludotekek historia gehiago dute, lokalak oso finkatuta daude, eta horiek arrakasta handia daukate.

Zein da Elgoibarko gazteen arazoa?

Elgoibarko gazteak beste herrietakoak bezalakoak dira. Norbere buruaren ezagutza prozesuan daude eta nortasuna finkatzen doaz, garai gatazkatsua da. Prozesu horren garapena egokia izan dadin, dituzten beharrak asetzea berriz beharko litzateke; balore eta erreferentzia batzuk beharrezkoak egiten dira. Elkarrekin harremantzeko aukerak ematen dizkien gune batek, erreferentziazko hezitzaile batzuk dituen gune batek, aukera hauek eskaintzen dizkie.

Treneko istripuak proiektu hauei bultzada eman al die?

Baliteke, horrelakoek alarma pizten dute eta irtenbideak bizkortu egiten dira.

Noizko egongo dira prest?

Gure asmoa datorren ikasturterako martxan jartzea da. Urruzunoko Babes Ofizialeko etxepan kokatuko dira.

Bestalde, Gaztetxearen kontua zein egoeratan dago?

Momentuz lokal bat egokitu zaio Gaztetxeari, Mupem enpresa zegoen lokalean kokatuko da Gaztetxea. Hori onartuta dago, baina obrak egiten hasteko prozesu bat jarraitu behar da. Lehenengo, baldintza pliegoak atera behar dira obra horiek nolakoak izango diren zehazteko. Gero hau guztia onartu egin behar da eta aldikari ofizialean egongo da lehiaketaren



“Gazteen erreferentzia izango den gune baten beharra ikusten dugu”

deialdia. Honen ostean enpresa desberdinek beraien proiektuak aurkeztuko dituzte, eta Udalak egokiena iruditzen zaiona aukeratu du. Prozesuak denbora behar du, ez naiz data bat esaten ausartzen. Dena martxan dago eta Gazte Asanbladakoekin harremanetan nago.

ipuin

harrigarriak



Herri literaturaz gozatzeko
kondairak, ipuinak, istorio bitxiak

Ipuin harrigarriak 1

Kastillopranko • Biribil-biribilak

Ipuin harrigarriak 2

Dar-dar • Ondo eginaren ordaina

Ipuin harrigarriak 3

Gatza ala erregea • Biziak ezagutzeko hil

Ipuin harrigarriak 4

Zapatari asmatzailea • Zerraldoan bizirik

Ipuin harrigarriak 5

Ikazkina eta heriotza • Besterik ez bezalako kapela

Ipuin harrigarriak 6

Estudiante Tonto • Ezkonberriak

Ipuin harrigarriak 7

Kanillo arrantzalea eta Kanillotxiki • Zeruko berriak

Ipuin harrigarriak 8

Pepetxu eta Popatxu • Kardulatza salatari

Urriaren 8tik aurrera
ASTEBURUETAN



+ 3 €

Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Bizkaiko Foru Aldundia



Bizkaia

Euskaldunak behar dugun

berria

1



1 berria

2



2 berria

3



3 berria

4



4 berria

5



5 berria

6



6 berria

7



7 berria

8



8 berria

ERROSARIO KALEKO JAIEN AMAIERA

Errosarioko Ama Birjinaren Eguna ospatzen da gaur

Urriaren 2an hasi ziren Errosario kaleko jaiak asteburu honetan amaituko dira. Hasteko, gaur, hilak 7 Errosarioko Ama Birjinaren Eguna ospatzen dihardute kaleko bizilagunek. Gauzak horrela, Errosarioko Ama Birjinaren irudiaren aurrean otoitza eta Salbea abestuko dituzte kalean hildakoen alde (19:30). Gauean Errosario kaleko afaria egingo dute Kultur Etxeko sotoan. Bihar, zapatua, amaituko dira ekintzak Plaza Handian jokatu diren esku

pilota partiduekin. Lagunak taldeko pilotariak eta iparraldekoak arituko dira nor baino norrago. Amaitzeko, Ama Birjinaren kultoak sorrarazten dituen gastuei aurre egiteko dirua batzeko ontziak jarrai dituzte antolatzaileek Errosari kaleko zenbait komertziotan: Etxeberria farmazia, Astigarraga kirolak, Ziarda harategia eta Gabilondo estankoa. Rifak ere atera dituzte eta kalean bertan gastatu ahal izateko dirua izango da saria.



“Hiru Txerritxoak” antzezlaren estrenaldia Herriko Antzokian



Glu Glu Produktzioak antzerki taldeak Elgoibarko Herriko Antzokian estreinatuko du “Hiru Txerritxoak”, ekoiztu duen azken antzelana. Domeka honetan, hilaren 9an izango da 16:30etatik aurrera. Martitzenean eskaini zuten prentsaurrekoa Herriko Antzokian bertan eta 3 eta 9 urte bitarteko haurrentzako antzezlana dela azpimarratu zuten. Ipuin klasikoan oinarritutako lan honek hiru pertsonaia xebrereren abenturak erakutsi nahi dizkie gaur egungo umeei. Adiskidetasuna nagusi den istorioa, batzutan samurra eta besteetan beldurgarria, umorezko abenturan gauzatu nahi izan du Glu Gluk, kolorea, barrea eta musika ezinbesteko bidai lagun diren ikuskizunean. Euskara hutsuan antzeztuko dute oholtza gainera igoko diren bost aktore gazteek.

Yoga, dantza eta ingeles ikastaroak Haizearekin

Haizea Emakume Taldeak hainbat ikastaro eskainiko ditu datozen hilabeteotan. Yoga ikastaroa izango da hauetako bat. Olaizaga kiroldegian emango da martitzen eta eguenetan, 16:30etik 18:00etara. Izena emateko telefonoa: 943 74 44 15. Dantza latino eta sevillanen ikastaroa, berriz, azoka plazan izango da eguenetan eta

barixakuetan. Izena emateko: 943 70 07 91 (Isabel Moreno). Oinarrizko ingeles ikastaro bat egiteko aukerarik ere izango da 943 74 32 06 telefonora hots eginez. Azkenik, garapen pertsonala gaitzat duen ikastaroa emango du Eskame Larrinaga psikologoak asteazkenean. 50 euroko kostua du eta izena emateko telefonoa, 943 74 32 06 da.

Elgoibarko X. Komiki Lehiaketa abian da

KoKoe Komiki Elkartek antolatzen duen Komiki Lehiaketa 10. ediziora iritsi da aurten. Parte hartzaileek azaroaren 4ra arte izango dute lanak aurkezteko aukera.

Orijinalak helbide honetara bidali beharko dira: Kultura Zerbitzua (Komiki Lehiaketa) Nafarroa Plaza, 3 20870 Elgoibar (Gipuzkoa).


Nahi duen guztiak har dezake parte lehiaketa honetan. Gaia librea izango da, baina pertsonaiek eta istorioek orijinalak eta argitaratu gabeak izan beharko dute.

Oinarrien inguruko informazio gehiago nahi izanez gero, <http://www.kokoe.org/> helbidean aurkituko duzue.



MIKEL ELKORO-IRIBE HAUNDIKO JOKALARI OHIA

«Aldagela barruko istorio eta broma txikiak faltan botatzen ditut»



Mikel Elkoro-Irribek Haundiko aurrelariak futbola laga zuen iaz. 10 urte zituela hasi zen baloi baten atzetik korrika, eta Haundi, Reala eta Lagun Onak taldeetatik pasa ostean 28 urterekin nahikoa dela erabaki du.

👤 **Futbolari batentzako adinik onenean lagatzea erabaki duzu?**

Hainbeste urte eta gero, piskanaka ilusioa galdu nuela konturatu nintzen. Egunero Mintxetara igo eta entrenatzeko motibazio asko behar da eta nahiago dut beste batzuei lekua egin eta neu beste zerbaitean aritzea.

👤 **Halere kosta egingo da azken erabakia hartzea.**

Bai, noski. 18 urte izan dira. Konpetizioa da faltan gehien botatzen dudana, eta baita aldagela barruan gertatzen diren historia edo broma txiki horiek ere, taldegiroa eta ekipoko lagunak. Oraindik ez naiz partidarik ikustera igo Mintxetara, gaizki pasako dudala baidakit.

👤 **Zein da futboleko egin duzun ibilbidea?**

C.D. Elgoibarren hasi eta 13 urterekin Realean jokatzera joan nintzen. 6 urte egin nituen Donostian eta behe mailako kategoria denetan jokatu nuen, kadete txikietan hasi eta Sansera arte. Talde nagusian jokatzeko bakarrik falta izan zitzaidan. Sanse laga eta gero 4 urte egin nituen Haundin. Azpeitiko Lagun Onak taldean urtebete eta azken 5 urteak berriz ere Haundin.

👤 **Zer oroitzen dituzu Realeko egonaldiaz?**

Desberdina da Realean, Sansen edo Elgoibarren jokatu. Donosti aldean asko ikasi eta lagun mordoa egin nituen, baina Elgoibarrera itzuli

nintzenean beste era bateko giroa aurkitu nuen: lagunarteko giroa, afariak, e.a. Ez dut lehiakortasunik ez zegoenik esan nahi, jokalarik denok nahi baitugu jokatzeko, baina beste era batekoa da. Realeko jubenilekin eta Sanserekin hasi nintzenean, zaharragoek konpetentzia moduan ikusten gintuzten gazteok.

👤 **Zer eman dizu futbolak?**

Lagunak, gogoan izateko partiduren bat edo beste, 3. mailara lortu genuen azken igoera eta Kike Ormaetxea entrenatzaile zela egin genituen 3 urteak. Bigarren B mailara igo ginen eta bertan 7. edo 8. sailkatzea lortu genuen, kalitatezko futbola jokatu.

👤 **Oroitzen dituzu txarrik bai?**

Hiru urtez jarraian maila galtzea tokatu zait, bi aldiz Haundirekin eta behin Lagun Onak taldearekin. Desanimatu egiten du eta begiz jota nengoela uste nuen. Bestalde, urtetik urtera jokalarik asko aldatzen direnez zaila da kontaktua mantentzea. Bere alde ona ere badu, jende gehiago ezagutzeko aukera ematen baitu.

👤 **Aldagelako giroa oso garrantzitsua dela esaten da?**

Arrakasta izateko jokalarik onak edukitzea ezinbestekoa da, baina unerik txarretan aldagelako giroa ona ez bada, taldeak ez du erreakzionatzen. Ez da berba egiten eta pikeak sortzen dira. Zorionez, Elgoibarren beti eduki dugu aldagela osasuntsua. Kanpotik etorri diren jokalariek egiazatu digute.

«Kike Ormaetxea entrenatzaile zela egindako jokuekin gelditzen naiz»

XIV. SAN PEDRORA TXIRRINDULARI IGOERA

Pilarika Egunean, urriaren 12an, ospatuko da San Pedrora igoera

Elgoibarko Lagun Taldeak Julian San Juanen oroimenez antolatzen duen San Pedrora Txirindulari Igoera urriaren 12an ospatuko da. Parte hartzaileak Plaza Handitik aterako dira eguerdiko 12:00etan. Iaz 64 txirindularik parte hartu zuten proban eta Azysa- Biancotrailer afizionatu taldeko Ramon Javier Garcia izan zen bizkorrena. Elgoibartarra Inigo Larizen errekorretik 15 segundura geratu zen. Garciak 13:36 denborarekin zeharkatu zuen helmuga, Jorge Gonzalez bigarren sailkatuari 42 segundoko aldeareaz. Bestalde, Azysa- Biancotrailer taldean ari den Arkaitz Mujika kompetiziora itzuliko da klabikula hausturatik berreskuratu ostean. Ampurdam-eko Itzulian parte hartuko du elgoibartarrak asteburu honetan. Egutegiko azken lasterketa da Kataluniako.



[EMAITZAK]

FUTBOLA

Aurrera Ondarroa **0** - Haundi **1** (3. maila)
 Elgoibar **3** - A. Ondarroa **0** (Erreg.)
 Elgoibar **1** - A. Vitoria **1** (Jub.)
 Elgoibar **2** - A. Ondarroa **1** (Kad.)
 Beasain **2** - Elgoibar **3** (Inf. A.)
 Elgoibar **0** - Bergara **7** (Neskak)
 Elgoibar **5** - Mondragon **1** (Neskak F-8)
 Elgoibar **0** - Eibar **0** (Inf. Txiki)

PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa

Lagunak (Ulazia/Iriondo) **22** - Añorga **16** (2. Nag.)
 Añorga **0** - Lagunak (Atxotegi/Portu) **22** (1. Jub.)
 Lagunak **10** - Eibar **22** (2. maila jub.)
 Lagunak **3** - Ilunpe **22** (2. maila kad.)
 Hemani **22** - Lagunak **30** (Jub. nesk. palaz)

ESKUBALOIA

Antt Softlan **20** - Bergara **16**
 Egia **20** - Tecnifuelle **16** (Sen. mut.)
 Urola **5** - Cometel **23** (Jub. nesk.)
 Pagoaga **38** - ITE Hondarribi **3**

[AGENDA]

FUTBOLA, Mintxetan

Zapatua, **8**
16:30 Haundi - Lagun Onak (3. maila)
Domekia, 9
11:30 Elgoibar - Lehengokoak (Inf. A.)

ESKU PILOTA, Ikastolako frontoian

Barixakua, 7
22:00 Lagunak - Hemani (Jub. nesk. palaz)
22:45 Lagunak - Hemani (1. maila Jub.)

ESKUBALOIA Kiroldegian

Zapatua, **8**
16:30 Tecnifuelle - Urduliz (Senior mut.)
18:00 Cometel - Leizaran (Jub. nesk.)

Pilates' ikastaro arrakastatsuan parte hartzeko aukera



Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak antolatu dituen 'Pilates' metodoaren gaineko ikastaroek demaseko arrakasta izan dute. 5 talde osatu dira jadanik, guztira 75 ikaslerekin, baina jende asko gelditu da lekurik gabe eta horregatik Kirol Patronatuak beste talde bat osatzeko asmoa dauka. Talde honen ordutegia hau izango da: astelehenak eta asteazkenak, 15:00etan, Olaizaga kiroldegian. Izena emateko kiroldegira jo.

Mintxeta Atletismo taldekoen emaitza onak denboraldiko lehen lasterketan

Jose Merinoren omenezko lasterketak hasi zuen kros denboraldia Emuan, joan zen urriaren 2an. Bertan, Mintxetako 25 atleta aritu ziren eta estreinaldi ezin hobea izan zuten. Lehen postu bat, bi bigarren eta hiru hirugarren postu eskuratu zituzten. Infantil mailan Angel Lopezek irabazi zuen proba eta Borja Diez sailkatu zen bigarren postuan. Benjamin mailan bigarren postuan helmugaratu zen Ibon Belaustegi. Brontzeko dominak eskuratu zituzten antxintxikiariak, beriz, Otsalar Urain, Unai



Amililleta eta Raquel Avila izan ziren. Argi dago sasoi betean hasi dutela denboraldia.

Eskubaloia infantil taldea sortzeko deialdia

2005-2006 denboraldirako infantilen taldea sortzeko asmoz, Elgoibarko SANLO Eskubaloia Kirol Taldeak 1992-1993 urtean jaio diren neska-mutuei deialdia egin nahi die. Eskubaloian jokatu nahi duten guztiek, datorren asteartean, urriaren 11n, 19:15ean Olaizaga kiroldegian kirol jantziekin azaldu daitezela, eta Lorea Gabilondorengatik galde dezatela.

[LANA]

ESKAERA

- † Neska harategian lan egiteko prest. Papelak ditut. ☎ **615 00 83 46**
 - † Emakumea haurrak zaintzeko prest. Urtebeteko esperientzia. ☎ **669 22 35 27**
 - † Emakumea kamarera, garbiketa edo beste edozertan lan egiteko prest. ☎ **600 28 27 93**
 - † Emakumea sukaldean, garbiketa lanak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **690 701 118**
 - † Emakumea etxeko lanak egiteko prest. ☎ **943 74 22 01 (Araceli)**
 - † Neska gazte euskalduna aste barruan aratsaldez umeak zaintzeko prest. ☎ **628 59 83 59**
 - † Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest: elkartek, portalak, etxeak... ☎ **639 88 20 04**
 - † Emakumea nagusiak zaintzeko prest ospitalean edo etxean. ☎ **943 03 36 05**
 - † Emakumea orduka garbiketa lanak egin eta plantzatzeko prest. ☎ **943 03 36 05**
 - † Neska haurrak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. ☎ **680 526 614**
 - † Neska nagusiak edo haurrak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. ☎ **686 578 228**
 - † Neska gaztea orduka lan egiteko prest. ☎ **638 716 987**
 - † Neska gaztea umeak zaindu edo garbiketatarako prest. ☎ **649 77 80 11**
 - † Mutil gaztea baserrian, kamarero, nagusiak zaindu... lanerako prest. ☎ **680 91 88 93**
- ESKAITZA**
- † Psikologoa behar da. ☎ **676 61 70 55**

- † Neska edo emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. ☎ **636 129 543**
- † Jatetxerako kamareroa behar da. Asteburuetarako. ☎ **943 12 12 62**
- † Bi ume zaintzeko pertsona bat behar da. ☎ **605 73 67 43**
- † Astegun eta asteburuetan taberman lan egiteko pertsona bat behar da. ☎ **943 742897**
- † Neska edo andra bat behar da 4 urteko umea zaintzeko goizez eta arratsaldez. ☎ **619 643 532**
- † Ikastolako jantokian haurrak zaintzeko pertsonala behar da. Euskara ondo dakiena eta puerikultura edo begirale titulua duena. Interesatek irailaren 27a baino lehen deitu ikastolara. ☎ **943 74 44 41**
- † Kamareroa behar da. Neska zein mutila. Autoa beharrezkoa. ☎ **943 20 27 27**

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

- † Pisuak salgai Urasandin. 4 logela, 2 komun, dena kanpoaldera. Berritua, gas naturala, leiho hermetikokoak, trasteroa, bista ederrak. ☎ **943 74 88 31**
- † Etxea salgai Soraluzen. ☎ **943 85 29 99**
- † Pisuak salgai. Oso eguzkitsua eta ikastetxe baten ondoan. 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldea, ganbara. ☎ **666 76 22 95**
- † 90m²ko etxebizitza salgai Erretxindin. Berritua. Oso interesgarria. ☎ **651 700 752**
- † Pisuak salgai Pedro Migel Urruzuno 8an. Igogailua eta berogailuarekin. ☎ **943 53 10 03**

ALOKAIRUA

- † Pisuak alokatzen da Torreveijan. Igerilekuarekin, hondartzatik 600 metrora. ☎ **628 584 535**
- † Pisuak alokatzen dit Gasteizen. Erdigunean. 2 logela. ☎ **943 74 18 98**
- † Bi logela alokatzen dira. Arropa garbiketa barne. Herri erdian. ☎ **620 740 898**
- † Pisuak hartuko nuke alokairuan. ☎ **675 467 874**
- † Logela alokatuko nioke emakume bati. Pertsona ona izan dadila. ☎ **943 74 0890 (Lola)**
- † Atiko duplex-a alokairuan edo salgai Marbellan. Igerilekuarekin, hondartzatik gertu. ☎ **943 74 02 68/699179872**
- † Pertsona bat behar da pisua osatzeko. ☎ **610 45 85 52**
- † Apartamentua alokatzen da Benidorm-en. ☎ **943 74 02 68 (gauzez)**
- † Pisuak hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **626 91 49 04 (Rosa)**

[GARAJEAK]

- † Garaie itxia salgai kiroldegi aurrean. Garbilekua, 5,30x2,70. ☎ **609 41 73 52**
- † Garaie itxia salgai Madalan. 28 m² ☎ **646 50 28 66**

[LOKALAK]

- † Lokal komertziala salgai Urasandin. 27 m² ☎ **627 00 79 50**
- † Neska koadrila batek lokal txikia alokatuko luke. Merke. ☎ **695 71 77 25**
- † Lokal txikia alokatuko nieke neskei. ☎ **667 838 858**

[SALEROSKETAK]

- † Nintendo DS bideojokua salgai. 2 jokurekin, gutxi erabilia, merke. ☎ **661 42 60 77**
- † Izozkailu horizontala salgai. Berriberria. Kolorezko telebista ere salgai. Prezio onak. ☎ **645 70 77 00**
- † Motorra salgai. Riegu 49cc. Egoera onean. ☎ **662 130 495**
- † Umeentzako kotxesilla bikoitza salgai. Urdin iluna, Graco markakoa. 70 euro. ☎ **943 74 43 38**
- † Peugeot 206 autoa salgai. 1400cc. 75cv. gasolina. 46.000km. ITV 2007. SS-BJ. 5.500 euro. ☎ **943 74 43 10**
- † "Todo a 100" negozioa salgai jubilaioagatik. ☎ **943743536/675717704**
- † Ford Fiesta salgai. Egoera onean. SS-2107-AM. ☎ **652 725 839**

[PARTIKULARRAK]

- † Ingeles klaseak ematen dira etxean. Maila guztiak. ☎ **606 73 38 50 (Carlos)**
- † Irakasle natiboak aleman klaseak emango lituzke. ☎ **650 729 683**

[BESTERIK]

- † Caritasek umeentzako kuna eskatzen du. ☎ **943 74 15 09**
- † Bernardo Ezenarro kale inguruan pultsera bat galdu dut. ☎ **637 974 283**
- † Elgoibarko Caritas-ek mantak eta izarak behar ditu. Premia handia dago. ☎ **943 74 15 09**
- † Iraila hasieran artilezko zapatilatxoa galdu nuen irlandese aurrean, txuri-urdi-na ☎ **943 03 04 34**

maitane

ESTETIKA ZENTROA



- Aurpegi tratamenduak
- Gorputz tratamenduak
- Nutrizionista zerbitzua
- Solairuma
- Masajeak
- Dekolorazioa

- Depilazioa
- Laser depilazioa
- Makillajea
- Mikropigmentazioa
- Betileen eta bekainen tindatzea eta permanentea



Hondartza, 7 behea • DEBA

Tel.: 699 347 040 / 943 19 12 11

URASANDI

Pisu berritua salgai.

3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Berogailua. Terraza. Ganbara. Eguzkitsua.

ARBELOA INMOBILIARIA San Frantzisko, 34
Tel.: 943 74 84 27 / 699 95 30 21




- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

MEKANOSA

Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

[ZORIONAK]



† Zorionak **Jose Manuel** urriaren 3an, 10 urte egin zenituelako. Anaia eta familiako guztien partez.



† Zorionak iloba maitakorrenari. Muxu handi bat familiako partez. Inork ez dit lapurtuko gehien maite dudana. Ama.



† Zorionak **Ione** urriaren 5ean urtebete egin zenuelako. Ondo pasa eta muxu handi bat etxeko partez.



† Zorionak **Aida** urriaren 6an 4 urte egin zenituelako. Neska handia zara! Muxu bat. Guraso, aititxa ta amama eta Tamara.



† Zorionak **Garazi Arriola** bihar zure lehen urtebetea delako. Muxu bat. Guraso, Aitona Julian eta amona Maria Jesus.



† Zorionak **Aritz** atzo 13 urte egin zenituelako. Etxeko eta bereziki, Anerren partez.



† Zorionak **Nerea** bihar 6 urte egingo dituzulako. Familiako guztien partez.



† Zorionak **Amaia** urriaren 13an 10 urte egingo dituzulako. Etxeko partez muxu handi bat.



† Zorionak **Ekaitz** urriaren 6an 7 urte egin zenituelako. Etxeko eta bereziki, anaia losuren partez.



† Zorionak **Txapeldun** hilaren 12an 8 urte egingo dituzulako. Familiako eta bereziki, losu, Leire eta juleneren partez.



† Zorionak **Txari** urriaren 5ean urteak egin zenituelako. Segi horrela, guapa! lagunen partez.



† Zorionak **Alaitz!** Bost urte bete dituzu eta hagin berriak ere badituzu. Etxeko eta Gaizka eta Mirenen partez muxu bat



† Egun politza pasa dezazuela espero dogu kuadrilako danok. Parrandarako prest gaude. Zorionak bikote!



† Zorionak **aitaxo** eta **Julen** zuen urtebetez. Familiako eta bereziki, Alexen partez.



† Zorionak **Aitor eta Amaia** asteazkenean eta gaur urteak egin dituzulako. Etxeko eta Nerearen partez muxu bat.



† Zorionak **Alberto** eta **Yumy** zuen urteurren eta urtebetez. Familiako partez.



† Mila kilo zorion **Rosa** eta **Txarol!** Egun potoloa heldu zaizue. Muxu handi bat zuen lagun gaztien partez.



† Zorionak **Iker eta Aurkene!** Azkenean iritsi da zuen eguna. Ondo pasa eta zoriontsu izan. Etxeko partez.



† Zorionak **Malen** gaur lau urte egin dituzulako. Muxu asko familiako guztien partez.



† Zorionak **Urbietatar Jabier** urriaren 4an 3 urte egin zenituelako. Aitonak eta osaba-izeben partez.



[OKINDEGIA]



9 igandea IBARRENEA

12 eguaztena BOLINTXO



[FARMAZIAK]

	EGUNEZ	GAUEZ	KANPOKO FARMAZIAK
7	Etxeberria (Santa Ana)	Etxeberria	IBAÑEZ Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38
8	Etxeberria (Errosario)	Fernandez	FERNANDEZ Herriko enparantza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42
9	Fernandez	Fernandez	ZABALETA Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84
10	Yudego	Yudego	
11	Zabaleta	Zabaleta	
12	Yudego	Yudego	
13	Ibañez	Ibañez	
14	Bidasolo	Bidasolo	



[TELEFONOAK]

OSASUNA	BESTELAKOAK
Anbulatorioa 943 03 26 10	BARREN astekaria 943 74 41 12
Larrialdiak 943 46 11 11	Elgoibarko Izarra 943 74 16 26
Planning-a 943 74 29 50	Kiroldegia 943 74 44 15
Alkoholiko Anonimoak 943 74 03 85	Konsumo Bulegoa 943 74 30 88
D.Y.A (anbulantzia) 943 46 46 22	Liburutegia 943 74 35 25
Gurutze Gorria 943 74 38 64	Musika Eskola 943 74 21 45
Mendaroko Ospitalea 943 03 28 00	Mintxeta 943 74 43 15
Odol Emailak 943 74 39 36	Parrokia 943 74 08 42
	Postetxea 943 74 15 47
	Gazte Informazioa 943 74 14 61
	KZ gunea 943 74 88 28
UDALA	ADINEKOEN ETXEAK
Euskara Zerbitzua 943 74 43 66	San Lazaro Egoitza 943 74 02 96
Kultura Zerbitzua 943 74 21 58	Zaharren Biltokia 943 74 05 26
Hirigintza 943 74 43 84	Eguneko Zentroa 943 74 45 65
Epaitegia 943 74 16 30	
Haziena 943 74 44 14	IKASTETXEAK
Mendaroko Udala 943 03 32 82	Haur Eskola 943 74 21 41
Ongizate zerbitzua 943 74 10 08	HII (EPA) 943 74 08 80
Udaletxea 943 74 10 50	Herri Eskola 943 74 08 79
Udaltzaingoa 943 74 13 94	I.M.H. 943 74 41 32
Debemen 943 74 40 67	Institutua • Arreiturre 943 74 80 19
	•Ezenarro (Meka) 943 74 80 19
GARRAIOAK	Ikastola 943 74 44 41
Eusko Trenbideak 943 74 04 42	Pilar Ikastetxea 943 74 13 31
PESA (Eibar) 902 10 12 10	
Taxi geltokia 943 74 08 98	
Bizkaibus 902 222 265	



[AUTOBUSAK]

ELGOIBAR - DONOSTIA

Astegunak:
7:10, 7:40, 8:10, 9:00, 10:40, 13:40,
14:00, 14:40, 15:00, 15:40, 16:00,
18:40, 19:05, 20:00, 20:40

Larunbatak:
7:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 15:00,
18:40, 20:00

Igandeak eta jaiegunak:
9:40, 10:30, 13:40, 18:40, 20:00,
20:40

Pesa: 902 10 12 10

DONOSTIA - ELGOIBAR

Astegunak:
6:15, 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30,
13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30,
19:30, 20:45.

Larunbatak:
8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30,
19:30, 20:45

Igandeak eta jaiegunak:
12:30, 17:30, 19:30, 20:45.

PESA: 902 10 12 10

ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA

Astegunak:
6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45...
ordu erdika. Azkena; 20:45.

Asteburuak eta jaiegunak:
7:15ean hasita, orduka. Azkena; 20:15.

EUSKOTREN: 943 74 04 42

MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR

Astegunak:
6:55ean hasita, ordi diru. Azkena
21:55.

Asteburu eta jaiegunak:
7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.

EUSKOTREN: 943 74 04 42

LARUNBAT GAUEKO ZERBITZUAK

EUSKOTREN: 943 74 04 42

ELGOIBAR-DEBA

1:05, 2:35, 4:35, 6:05

DEBA-ELGOIBAR

12:10, 1:55, 3:40, 5:25

ELGOIBAR-EIBAR

12:25, 2:10, 3:55, 5:40

EIBAR-ELGOIBAR

1:00, 2:30, 4:30, 6:00

[7 BARIXAKUA]

17:30 "AMAMA PANTXIKAREN ALT XOR EZKUTUA" IKUSKIZUNA

Taldea: Zenbat Gara antzerki
taldea

Herriko Antzokian

Antolatzailea: Elgoibarko Izarra
(Kiribilka programaren barruan)

22:00 BIDEO-FORUM-A

Filmea: "Normal"

Hizlaria: Eskarne Larrinaga

Kultur Etxeko hitzaldi gelan

Antolatzailea: Haizea Emakume
Taldea

[8 ZAPATUA]

11:30 BIKINGO JAIA

Tailerrak, eskulanak, jolasak, e.a.

Norentzat: Haur Hezkuntza (3-5
urte) eta LH 1,2 eta 3.

mailakoentzat

Plaza Handian

Antolatzailea: AtxutxiamaiKa

Aisialdi Taldea

11:30 ELGOIBARKO

DULTZAINEROEN KALEJIRA

Elgoibarko EAJren mendeurreneko
ekitaldia

S
I
N
O
P
S
I
A

12:30 BURUZAGI ETA AGINTARIEI ONGI-ETORRIA

Josu Jon Imaz eta Joseba Egibarren hitzaldia
Alderdzale eta alderdikideentzat bakarrik
Elgoibarko EAJren mendeurreneko ekitaldia

13:30 BATZOKIAREN BERRINAUGUZAZIOA

Ateak irekiko dira batzokiko berrikuntza lana ikusteko

14:30 BAZKARIA

Sigma jatetxean
Elgoibarko EAJren mendeurreneko ekitaldia

[9 DOMEKIA]

10:00 MENDI IRTEERA

Irteera: Ikastolatik
Nora: Besaide (550 m.) mendira
Nondik: Udalatik (Arrasate)
Antolatzailea: Elgoibar Ikastola

16:30 ANTZERKIA

Antzezlan: "Hiru Txeritxoak"
Taldea: Glu Glu Produkzioak
Herriko Antzokian

[11 MARTITZENA]

10:00 PILAR IKASTETXEKO ZAINDARIAREN FESTA

Jokuak, futbol eta pilota finalak eta sari banaketa.

[12 EGUAZTENA]

12:00 SAN PEDRORA TXIRRINDULARI IGOERA

Irteera: Plaza Handitik
Antolatzailea: Lagun Taldea

12:00 PILAREKO AMABIRJINAREN JAIA

Meza Pilar Ikastetxeko gimnasioan

13:00 GURASO BATZORDEAK ESKAINTZEN DUEN JANAURREKOA

Pilar Ikastetxean

[14 BARIXAKUA]

16:30 ANTZERKIA

"Como Agua para Chocolate"
Taldea: Ados Teatroa
Herriko Antzokian
Sarrerak: aurrez salgai Kultur Etxean (goizez)

ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

«Mr. and Mrs. Smith»

8, zapatua: 19:30-22:15

9, domekia: 19:30-22:15

10, astelehena: 22:15

«Adivina Quien»

12, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, UNZAGA

«Torrente 3»

7, barixakua: 19:30-22:15

8, zapatua: 17:00-19:30-22:15

9, domekia: 17:00-19:30-22:15

10, astelehena: 19:30-22:15

11, martitzena: 19:30-22:15

12, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, RIALTO

«Aupa Etxebeste»

7, barixakua: 19:30-22:15

8, zapatua: 17:00-19:30-22:15

9, domekia: 17:00-19:30-22:15

«Viento»

10, astelehena: 19:30-22:15

11, martitzena: 19:30-22:15

12, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENEK ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketan erantzukizunik.

«Mr. And Mrs. Smith»



Zuzendaria: Doug Liman

Antzezleak: Brad Pitt, Angelina Jolie, Vince Vaughn.

John eta Jane Smith bikote arrunta dira. Gizon eta emakume izugarri ederrak, baina bizitza monotono eta normala daramatenak. Biek zerbait ezkututzen dute, ordea. Hiltzaile profesionalak dira eta elkarren konpetentzia diren erakundeentzat lan egiten dute. Bikote bizitza aspergarrira zirrara eta emozioa ekarriko duen txinparta, lanean jasoko duten hurrengo betebeharrak izango da, elkar asasinatzeko agindua, alegia. Orduan hasiko da bikotearen maitasuna kinka larrian jarriko duen benetako akzioa.

Atzera hegira



1992. urteko erretratu zahar hau **Juanito Gorostizak** laga digu. Argazkia oso zaharra ez den arren, Errosario kaleko jaietan murgilduta gaudenez, egokia iruditu zaigu argazki hau kaleratzea. Urte honetan izan zen Errosario kaleko Ama Birjinari salbea abestu zitzaion lehenengo aldia, eta argazkian ikusten den bezala, sekulako euri zaparrada bota zuen une hartan. Bedeinkapena zela zirudien! Hemendik aurrera ohitura bihurtu da, eta gero eta jende gehiago biltzen da urtetik-urtera. Esan digutenez, jendeak gogoz eta fede handiz abesten dio Ama Birjinari.



I. URTEURRENA

2004ko urriaren 3an, 72 urte zituela hil zen *Carlos Agirre San Martin*en oroimenez urteurreneko meza izango da, larunbatean, urriak 8, arratsaldeko 19:00etan Parrokian. Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



*Izan zirelako gara eta
garelako izango dira*



1905-2005

1. MENDEAURRENEAN

*Eskerrik asko
Elgoibarko herritarroi*

ANTZERKIA

Como agua para chocolate



ADOS
TEATROA

Urriak 14, ostirala
22:15ean
Herriko Antzokian



KULTURA SAILA



FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA



SAREA

3 TXERRITXOAK



Xurru, Kurrin eta Korrokek,
hiru txerritxoek,
mundu handia eta zabala
ezagutzeko asmoa dute.
Horregatik, bizi diren baserritik
alde egitea erabaki dute
hiru txerritxoek baina etxe bana
eraiki beharko dute basoan orain.

Urriak 9, igandea
16:30ean
Herriko Antzokian



Familia guztiarentzat